

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

145/2020 Foru Agindua urriak 30koa, 137/2020 Foru Agindua, aldatzen duena, irailaren 23koa, zeinak arautzen baititu Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19ak eragindako osasun krisialdiak iraun bitartean

Eusko Jaurlaritzak, Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 14ko Aginduaren bidez, formalki berraktibatu zuen Euskadiko Babes Zibileko Plana, COVID-19a hedatzearen ondoriozko osasun alertak sortutako egoeraren aurrean. Ondoren, lehendakariak, abuztuaren 15eko 17/2020 Dekretuaren bidez, bere gain hartu zuen Euskadiko Babes Zibileko Planaren zuzendaritza, ezohiko moduan.

SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan, birusaren hedapenari aurre egiteko askotariko neurriak jaso dira, eta frogatuta geratu da baliagarriak direla, gure inguruko herrialdeek sistematikoki jotzen dutelako haietara, betiere bat etorri Osasunaren Mundu Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazitakoarekin.

Errege dekretu horrek 12. artikuluan xedatzen duenez, administrazio bakoitzak gordeko ditu indarreko legeriak ematen dizkion eskumenak —bai eta bere zerbitzuen eta langileen kudeaketarako eskumena ere—, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izateko, ezertan eragotzi gabe errege dekretuan ezarritakoa.

Horiek horrela, lehendakariak, agintari eskuordetu gisa, 36/2020 Dekretua eman zuen urriaren 26an, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurriak ezarri baitziren, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak COVID-19aren semaforoa erabiltzen du, zeinak balio baitu udalerrri bakoitzeko egoera epidemiologikoaren larritasuna neurtzeko. Semaforo horrek 5.000 biztanletik gorako udalerrriak kolore berdearekin, horiarekin, laranjaekin edo gorriarekin sailkatzen ditu, azken bi asteetan detektatutako koronabirus kasu berrien arabera. Zehazki, koloreak honela esleitzen dira:

- Berdea: intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 60 kasutik beherakoa denean.
- Horia: intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 60 eta 299 kasu artekoa denean.
- Laranja: intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 300 eta 499 kasu artekoa denean.
- Gorria: intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 500 kasukoa edo hortik gorakoa denean.

Kontuan izanik pandemiaren bilakaeran uztartu beharra dagoela, batetik, egoiliarrek ahalik eta gehien babestea eta, bestetik, familiarekiko eta gertuko pertsonetikiko harremana, Gizarte Politiken Sailak, lehenago, irailaren 23ko 137/2020 Foru Agindua onetsi zuen, zeinak arautzen baitzituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19ak eragindako osasun krisialdiak iraun bitartean. Foru agindu hori urriaren 9ko 140/2020 Foru Aginduak aldatu zuen.

Orain, lehendakariak emandako araua ikusita, beharrezkotzat jotzen da 137/2020 Foru Aginduari berriz heltzea eta aldatzea. Izan ere, funtsean egoiliarren bisitei eta ibilaldiei eutsiko zaie,

baina ibilaldiak automatikoki kenduko dira Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera eta COVIDaren semaforoari jarraituz kolore gorria esleituko zaien udalerrietan dauden egoitza zentro guztietan, atalase horretara heltzen diren unetik bertatik aurrera.

Sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak emateko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko, honako hauen babespean: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Presztazio eta Zerbitzuen Zorroaren urriaren 6ko 185/2015 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoentzako Egoitza Zentroen uztailearen 30eko 126/2019 Dekretua; urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua; eta urriaren 26ko 36/2020 Dekretua. Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea irailaren 23ko 137/2020 Foru Aginduaren hirugarren apartatua. Honela geratuko da idatzita:

Hirugarrena. Egoiliarren irteerei dagokienez, ibilaldi terapeutikoez izango dute lehentasuna, eta egoitzaren inguruko leku irekietan egingo dira, senideek edo hurbilekoek lagunduta. Egoiliar bakoitzak gehienez ere bi irteera egin ahal izango ditu astean, egoera epidemiologikoak horretarako aukera ematen duen zentro guztietan. Irteeretan, saihestu egingo dira, beti, leku itxiak eta jendetsuak. Irteerek gehienez ere ordubeteko iraupena izango dute, eta egoiliar bakoitza gehienez ere gertuko bi pertsonak edo bi senidek lagundu ahal izango dute.

Familiarekin oporrak igarotzeko irteerak baimentzen dira, gutxienez 15 egunerako eta, gehienez, 45 egunerako. Irten aurretik, egoiliarrek eta haien laguntzaileek ahoz eta idatziz jasoko dituzte etxean egongo diren bitartean hartu beharreko neurriei buruzko argibideak, eta erantzukizun agiri bat sinatu beharko dute.

Opor irteeretatik zentrori itzuli aurretik, PCR proba egiteko kudeaketa egin beharko da, adieraziko zaien moduan, eta egiaztatuko da ez dutela sintomarik izan eta ez direla harremanetan egon COVID-19 positiboa den edo familian prebentzioz isolatuta dagoen inorekin. Zentrori itzultzean, arropa guztia kenduko zaie garbitzeko, oinetakoen zola desinfektatuko da eta, hala dagokionean, gurpil aulkia edo bestelako euskarriak ere bai. Behin zentroko bizimodura sartuta, maskara kirurgikoa erabiltzeko arauak zorrotz bete beharko dituzte, eta gertutik zainduko dira 14 egunez ea sintomarik agertzen zaien ikusteko.

5.000 biztanletik gorako udalerrietan, bertan behera utziko dira Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko egoitzetan bizi diren eta mendekotasuna duten adinekoen zein desgaitasuna duten pertsonen irteerak eta Aldundiak zentro pribatuetan itunduta dituen plazen erabiltzaile guztien irteerak, baldin eta egoitza zentro horiek COVIDaren semaforoaren arabera kolore gorriko (muturreko arriskua) udalerrietan badaude, betiere Eusko Jaurlaritzak emandako datuekin bat etorritik.

Egoitza zentroetako irteerak bertan behera utziko dira automatikoki, Eusko Jaurlaritzak zentro hori dagoen udalerriri kolore gorria (muturreko arriskua) esleitzen dion unean bertan.

5.000 biztanleko edo hortik beherako udalerrietan, bertan behera utziko dira Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko egoitzetan bizi diren eta mendekotasuna duten adinekoen zein desgaitasuna duten pertsonen irteerak eta Aldundiak zentro pribatuetan itunduta dituen plazen erabiltzaile guztien irteerak, baldin eta, egoitza zentro bakoitzaren eta dagoen udalerrien egoera aztertuta, beharrezkoa bada neurri hori hartzea, egoera epidemiologikoaren arabera.

5.000 biztanleko edo hortik beherako udalerrietan dauden egoitza zentroetako irteerak bertan behera utziko dira automatikoki Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko diputatuak dagokion erabakia hartzen duen unean bertan.

Bigarrena. Foru agindu hau onesten denean sartuko da indarrean, nahiz eta ALHAOn geroago argitaratu, eta indarrean jarraituko du COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiaren inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 30a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO GERMÁN SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ